

Gordexolako Udala
Ayuntamiento de Gordexola

2025 urteko kirol arloko diru-laguntzen deialdia onestea

129 /2025 DEKRETUA , martxoaren 4koa

Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean eta 2018ko maiatzaren 30eko BAOn argitaratutako Deialdiaren Oinarrietan xedatutakoaren arabera, antolamendu juridikoak ematen dizkidan eskumenak kontuan hartuta, bereziki Toki Araubideko Oinarrien Legearen 21.1 s artikulua, EBATZI DUT:

2025 urteko kirol arloko diru-laguntzen deialdia onestea

1. Eremua eta xedea

Kirol arloko diru-laguntzetarako deia egiten da udal jardueraren osagarri izango diren kirolaren sustapen eta zabalkunderako ekimenak bultzatzeko; baita Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusitako gainerako xedeez gain.

Diruz laguntzeko kontzeptutzat jotzen da Kirol Elkartek/Klubek kirola sustatzea eta kirol jarduerak egitea, beti ere udal eskumenak, programak eta jarduerak osatzen badituzte edo udal interesekoak badira.

2. Ezarri beharreko araudia

Eskabideak ebazteko prozedura honakoek arautuko dute:

- Gordexolako Udalak deialdi bidez diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko maiatzaren 30ekoa, 103 zenbakia).
- Kirol arloko diru-laguntzen berariazko oinarriak (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko maiatzaren 30ekoa, 103 zenbakia).
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen erregelamendu-araudia.


Halaber, diru-laguntzen arloan honakoek xedatutakoa ezarriko da:

- Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarria.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena, II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3. Erakunde onuradunak

Diru-laguntza horien onuradunak honako baldintza hauek betetzen dituzten Gordexolako Kirol Elkartek/Klubak izango dira:

- Elkartearen egoitza edo helbidea Gordexolan izatea.
- Ekintza eremua Gordexolan izatea.
- Irabazteko asmorik gabeko elkartea/kluba izatea.
- Estatutuetan ezarritako helburuen artean kirolaren zabalkundea eta sustapena egotea.



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de Gordexola

— Ogasunarekiko zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak, eta Gordexolako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea; egoera hori eskabidea aurkeztzen den unean bete behar da, baita prozesu osoan ere (esleipena, betebeharra aitortzea eta ordainketa).

4. Aurrekontu kredituak

Diru-laguntzak Gordexolako Udalaren honako Aurrekontu Orokorreko partiden kontura finantzatzen dira: 3410 48132

Deialdi honetara zuzendutako zenbatekoa 3.875,00 eurokoa da.

5. Esleipen-prozedura

Diru-laguntza jaso dezakeen kontzeptuari norgehiagoka-prozeduraren araubidea aplikatuko zaio.

6. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagunduko diren gastuak izango dira zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak badira eta urte naturalean egiten badira (2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, biak barne).

Ez dira, inola ere diruz lagunduko:

— Jan-edanei dagozkien gastuak, baldin eta diruz laguntzen den jarduerari hertsia-hertsian loturik ez badaude.

— Ibilgailu partikularretan egiten diren joan-etorri gastuak, baldin eta diruz lagundutako jarduerari loturik egonik, diru-laguntzaren zenbatekoaren %15etik gorakoak badira.

— Udalak jarduera berberak eskaintzen baditu, udal parte-hartzearen osagarriak direnean izan ezik.

7. Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea BAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik 2025eko apirilaren 30era bitartekoa izango da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa

Deialdiari buruzko informazioa eta dokumentazioa Gordexolako Udalaren web orrian (www.gordexola.eus) egongo dira, baita udal bulegoetan ere, ohiko ordutegietan.

Era berean, Gordexolako Udaleko web orrian (www.gordexola.eus) eskabide orriaren eta dokumentazioaren ereduak egongo dira.

7.3. Izapidetzea

Kirol arloko diru-laguntzen berariazko oinarrietan «Eskabideak» atalean, «Eskabideak izapidetzea» azpiatalean xedatutakoari jarraituko zaio, 2018ko maiatzaren 30ean, Bizkaiako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 103 zenbakian.

8. Balorazio irizpideak

Aurkeztutako programak Kirol arloko diru-laguntzen berariazko oinarrietako «Kirol arloko diru-laguntzetarako irizpideak» atalean jasotako irizpideen arabera balioetsiko dira, 2018ko maiatzaren 30ean, Bizkaiako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 103 zenbakian.

9. Instrukzioa eta balorazioa


9.1. Prozeduraren instrukzioa kultura arloko teknikariak egingo dute.

9.2. Kide anitzeko organo gisa arituko den balorazio-batzordea honakoek osatuko dute:

— **Presidentea:** Alkatetza (Ángela María Eguía Liñero andrea, edo karguan dagoen pertsona).

— **Idazkaritza:** Udalbatzaren idazkari kontu-hartzailea.

— **Bokalak:** Kultur etxeko arduraduna (Ramón Zubiete Altuna jauna edo lanpostua betetzen duen pertsona) eta Euskara irakasle-itzultzailea (Itziar Urrutia Zorrozu andrea edo lanpostuan dagoen



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de Gordexola

pertsona). Horien ordezkioak izango dira udal funtzionarioak (María Cristina Abiega Castresana andrea, María Teresa Galindez Lopez andrea eta Iñigo Gómez Unzueta jauna).

9.3. Eskabideak deialdi honetan ezarritako balorazio irizpideei jarraituta ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena emango du eta bertan egindako ebaluazioaren ondorioa zehaztuko da.

9.4. Instrukzio batzordeak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, behin betiko ebazpen proposamena egingo du.

10. Ebazpena

10.1. Prozeduraren ebazpena egitea Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio.

10.2. Eskabideak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eta emandako diru-laguntzak eta ukatutakoak jakinaraziko dira.

Gehieneko sei hilabeteko epea amaitzen bada, ebazpena jakinarazi gabe, erakunde interesdunek legitimazioa izango dute diru-laguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jotzeko.

10.3. Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen-erabakiaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Alkatetzan, hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, era berean kontatuta.

11. Diru-laguntzak ordaintzea

11.1. Oro har, ordainketa aurreratuaren bidez ordainduko dira diru-laguntzak, emandako diru-laguntzaren zenbateko osoa justifikatu baino lehen, eta inolako berme-motarik eskatu gabe, diru-laguntzaren berezko jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzazio gisa.

11.2. Emandako diru-laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, Gordexolako Udal honen Hartzekodunen Erregistroan agertzen den erakundearen kontu korrontean.

11.3. Diru-laguntzaren ordainketa ez da egingo erakunde onuradunak diru-laguntzaren bat justifikatu gabe badu, baldin eta justifikatzeko epea amaituta badago. Ez da ordainduko, halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

12. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren publizitatea egitea

Diru-laguntza jaso duen erakunde orok, udal finantzaketa hau publiko egin beharko du, Gordexolako Udalaren logotipoa barne hartuta (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetan argitaratu ditzakeen iragarkietan.


Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren erantzukizun-klausula bat erantsi beharko da, honako testu honekin: «Proiektu hau Gordexolako Udalak diruz lagundu du, eta, hala ere, haren edukia erakunde onuradunaren erantzukizun eskusiboa da».

Gordexolako Udalaren arloek udal logotipoa erakunde interesatuen esku jarriko dute.

Era berean, diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitate-elementu gisa egiten diren kartel, testu eta agirietan bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili beharko dira. Era berean, diru-laguntzaren xede den jarduerari lotutako sustapen publikoak elebidunak izango dira, eta euskara eta gaztelania erabiliko dira.

Erakunde onuradunek jasotako diru-laguntzen berri eman beharko dute, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzetan.

13. Azpikontratazioa



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de Gordexola

Erakunde onuradunek jarduerak azpikontratatu ditzakete, deialdi bidez diru-laguntza emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorraren 29.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

14. Programa aldatzea

Programaren funtsezko edozein aldaketa egin aurretik, baimena eskatu beharko zaio Gordexolako Udalari, eta hark berariaz baimena eman beharko du.

Funtsezko aldaketa-eskaerak motibatuta egon behar dira, eta horrek eragiten duen aurrekontu- eta kronograma-ondorioak zehaztu behar dira.

Funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauek:

— Helburu orokorrak eta/edo espezifikoak aldatzea.

— Onartutako aurrekontuko partiden zenbatekoetan %20tik gorako aldaerak (partiden arteko aurrekontu-aldaketak ezin izango dira izan zeharkako kostuetan), programaren aurrekontu osoa murriztea eskatzen ez dutenak.

Diru-laguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa, justifikatzeko unean onartu ahal izango da, baldin eta onarpen horrek hirugarrenen eskubideak kaltetu ez baditu.

15. Uko egitea

Diru-laguntza eman ondoren, erakunde onuradunak uko egitea eskatu ahal izango dio Gordexolako Udalari, udal erregistroan aurkeztuta.

Eskaera epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, eta onartu egin beharko da, eta, hala badagokio, jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

16. Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

Gordexolako Udalaren diru-laguntzak beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuekin bateragarriak izango dira. Nolanahi ere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortutako finantziazioaren zenbatekoa ezingo da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

17. Diru-laguntzen justifikazioa

Diru-laguntzaren justifikazioa 2018ko maiatzaren 30eko 103. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako kirol arloko diru-laguntzetarako oinarri berezietan «diru-laguntzaren justifikazioa» atalean jasotako terminoetan egin behar da («justifikazio epea» «justifikatzeko zenbatekoa» «justifikatzeko sistema: justifikatzeko kontua» eta «justifikaziorik eza edo nahikoa ez den justifikazioa»).

18. Diru-laguntzen publizitatea

Udal webgunean emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak argitaratuko dira, halaber, ebazpena elkarte bakoitzari jakinaraziko zaio.


19. Erakunde onuradunaren betebeharrak

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde onuradunek beren gain hartu behar dituzte deialdi honetan jasotako betebeharrak, bai eta Gordexolako Udalak diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 103. zenbakia, 2018ko maiatzaren 30ekoa), kirol arloko diru-laguntzen berariazko oinarrietan (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2018ko maiatzaren 30ekoa, 103 zenbakia) eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta berau garatzen duen erregelamendu-araudian ezarritakoak ere.

Gordexolan, sinadura elektronikoaren datan

ALKATEA,

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de Gordexola

Sin.: Ángela María Eguía Liñero

Sin.: María del Mar Arranz Olmos